

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua funtziona dezan, eta hainbat lekutatik ezagutu dadin, hainbat baliabide erabiliko ditugu.

Alde batetik, gure produktua ekoizteko behar ditugun baliabideak lortzeko, hainbat banketxerekin harremanetan jarriko gara ahalik eta eskaintzarik onena jasotzeko. Horrela, hasierako kapitala lortuko dugu, eta hori da garrantzitsuena zerbait ekoizten hasteko. Horrez gain, bankuak ekoizteko behar den materiala ekarriko duen enpresa baten laguntza beharko dugu.

Beste alde batetik, gure produkturen bat huts egiten badu edo arazoren bat badago, mikrotxipekin adibidez, *Lankidego* informatika-enpresa kontratatatu dugu, gure erosleei konponketa-zerbitzurik onena eman ahal izateko eta gure erosleen fideltasun bat lortzeko. Gainera, gure mikrotxipek lau urtez bakarrik funtzionatzen dutenez, urte horiek igarotzen direnean, erosleak gurekin harremanetan jarri ahal izango dira mikrotxipa alda diezaiegun.

Gainera, June Ramirez, gure langile leiala, *Mediaset*-eko langile baten senidea denez, bertako langileekin hitz egingo du. Hura, telebistako publizitatearekin lagunduko digu, saio bakoitzaren amaieran guk egindako publizitate-bideoa jarriz. Horrela, telebista ikusten duen jendeak gure produktuak erostera etorri nahi izatea lortuko dugu.

**MEDIASET**españa.



Horretaz aparte, gure produktuak garraiatzeko *Santamaria Garraoiak* kamioi-enpresa kontratatuko dugu. Enpresa hori kontratatzea erabaki dugu, Malen delako, langileetako baten alaba, eta berak proposatu digulako, hasiera batean hainbat kamioi maileguan uztea, hainbeste gastu ez eragiteko.

Bazkide eta hornitzaile horiek gabe, enpresak ez luke funtzionatuko, behar diren laguntza guztiak ematen dizkigutelako, bai gure produktua ekoizteko, bai saltzeko.